

Hekimen elkartearen

KODE DEONTOLOGIKOA



Komunikabideek estandar etiko eta profesionalik zorrotzenak bete behar dituzte zinez herritarren zerbitzuan ariko badira, eta, era berean, funtsezkoa zaie helburu orokorrak, balio editorialak eta kazetari-jardunbide egokiak ondo zehaztuak edukitzea. Hekimen elkarteak bere egiten du deontologiaren eskakizunak zoli eta zorrotz betetzeko konpromisoa, eta, horren erakusgarri, hona hemen Hekimenen kode deontologikoa, herritarren informazio-eskubidea eta gure gizarteko norbanako bakoitzaren eskubideak uztartu eta babesteko asmoz ondua.

Hiru atal nagusi ditu: lehenbizikoan, Hekimen elkarte zer den azaldu da, labur-labur, sarrera moduan; bigarreanean, Hekimeneko komunikabideen oinarri deontologiko orokorrak zehaztu dira; eta, hirugarreanean, kazetari-jardun etikorako irizpide oinarritzkoak jaso dira.

Lehen atala

Hekimen Elkarte

• Zer den eta nor garen

Hekimen herri-ekimeneko euskarazko hedabideen elkarte da, euskal hiztunen komunitateak behar duen komunikazio-sektorea indartzeko sortua. Bertako hedabideek euskara hutsez jarduten dute, eta ez dira publikoak. Ezaugarri horiek dituzten komunikabide guztiek atea zabalik daukate Hekimen elkartean, elkarlanean aritzeko.

Begien bistakoa da herri-ekimeneko komunikabideen funtzio soziala, bai kalitateko informazio- eta entretenimendu-edukiak emateko duten konpromisoagatik, bai euskara garatzeko eta euskal kultura sustatzeko duten gaitasunagatik, eta bai euskal hiztunen komunitatea handitu, sendotu eta trinkotzeko duten bokazioagatik. Gaur egun, 27 bazkide biltzen dira elkartean.

• Gure jokalekua

Hekimenen izateko arrazoia edo misioa euskal hedabideen garapena erraztea da, instituzioen eta gizarte-eragileen aurrean lobby-lana eginez, hedabideei mota guztietako laguntza eskainiz (zerbitzuak, formakuntza, administrazioekiko akordioak...) eta hedabideen arteko elkarlana sustatuz; azken batean, guztiontzako onuragarriak izango diren proiektu komunak erraztuz eta bultzatuz. Euskal hedabideen erronka konpartituei aterabideak elkarrekin bilatzeko tresna bateratua da Hekimen, indarrak bilduz erronka handiei eraginkorrago erantzuteko sortua.

Gainera, zeregin horiek denak ikusmolde jakin batekin lotzen dira. Izan ere, Hekimenen jardunak balio behar du euskal hedabideen baldintzak hobetzeko, euskal ekosistema mediatikoa indartzeko eta, oro har, arrakastaz irauteko. Hekimen ezinbesteko tresna bat da euskal hedabideek beren funtzioa egokiro bete dezaten bai orain eta bai etorkizunean.

Hekimen, beraz, erraztailea izango da euskal hedabideentzat, laguntzailea, eta lan egingo du euskal hedabideen kohesioa, elkarlana eta harremanak hobetzeko. Ahalegin betean ariko da hedabide guztien baldintzak errazagoak izan daitezen alor guztietan, betiere adostasunean oinarrituta eta onura orokorra eskuratu nahian.

Azken finean, euskal ekosistema mediatikoa aberatsa, bizia, dinamikoa eta berritzailea izan dadin jardungo du. Horiek izango ditu bere balioak.



Bigarren atala

Oinarri deontologikoak

Hekimeneko partaideek erantzukizun handia dute, herritarren zerbitzuan eta gizartea hobetzen lagundu nahian aritzen direnez gero. Gogoetan eta esperientzian oinarriturik, balio editorialen oinarri deontologiko orokor batzuk ezarri dizkiote beren buruari, bidelagun izan daitezen eguneroko jardunean. Printzipio horien berri jakinarazi nahi dute jendaurrean, beren konpromisoaren erakusgarri.

- **Euskarazko komunikazio-esparrua: informaziorako eskubidea**

Euskaraz informazio independente, askotariko eta egiazkoa eman eta jasotzeko eskubidea dugu euskaldunok, eta Hekimeneko partaideek modua eman nahi dute eskubide hori zinez bete dadin. Horretarako, ezinbestekoa da euskarazko komunikazio-esparru sendo bat osatzea, eta erreferentzia izatea hedabideen alor guztietan. Hain zuzen, horretan dihardu Hekimenek.

- **Euskal Herria**

Euskaraz aritzeak batzen gaitu Hekimeneko partaideak; beraz, Euskal Herria da gure erreferentziarako lurraldea, eta euskal kultura da gure humusa.

- Euskararen tradizioari jarraikiz Euskaltzaindiak definitu bezala, Euskal Herria Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Behereak, Nafarroa Garaiak eta Zuberoak osatzen dute, eta halaxe emango da aditzera Hekimeneko partaideen komunikabideetan.



- 'Iparraldea' edo 'Ipar Euskal Herria' deitzen zaio mugaz iparraldeko Euskal Herriari, eta 'Hegoaldea' edo 'Hego Euskal Herria', berriz, mugaz hegoaldeko Euskal Herriari.

- 'Euskal Autonomia Erkidegoa' da Hego Euskal Herriko hiru lurraldek eratutako antolamendu politikoaren izena, eta Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen dute.

- 'Nafarroako Foru Komunitatea' da Nafarroa Garaiko erkidego politikoaren izena.

- 'Euskal Hirigune Elkargoa' izena du Iparraldeko herriak biltzen dituen egiturak.

- 'Estatua' ez da 'herria', 'herrialdea' edo 'lurraldea' kontzeptuen sinonimoa. Espainia eta Frantzia aipatzeko, hortaz, 'Espainia' eta 'Frantzia' erabiliko dira, eta ez 'Estatu espainola', ez 'Estatu frantsesa'. 'Estatu' hitza bere zentzu hertsian erabiliko da, hots, herrialde bateko gobernu- eta administrazio-organoen multzoa aipatzeko.
- 'Euskadi' ez da erabiliko, inoren esanetan edo talde edo erakunde baten izenean ez bada. Izan ere, gaur egun lausoa eta aldakorra da termino horren esanahia, norik erabiltzen duen.
- Arreta berezia jarriko da euskarazko leku-izenak egokiro erabiltzeko, Euskaltzaindiak araturikoak betez, eta erdal formak bazterturik.
- Erreferentzia geografikoak eta administratiboak zehatz erabiliko dira, eta Euskal Herriaren osotasuna bistaratuko da.

- Euskal herritarra da Euskal Herrian bizi den oro. 'Euskaldun' hitzak, berriz, euskaraz dakitenak izendatzen ditu, eta, zentzu historikoan, Euskal Herriko populua.
- Hekimeneko profesionalek betetzekoak dira lurraldetasunari eta herritartasunari dagozkion irizpideok, baina guztiz eta erabat errespetatuko dira elkarrizketatuen eta komunikabideez kanpoko iritzi-emaileen irizpideak, bestelakoak badira ere.

• Herritarren zerbitzuan

- Hekimeneko partaideek, zeinek bere esparruan, kalitateko eduki informatiboak, kulturalak, hezigarriak eta entretenigarriak bermatzeko xedea dute, herritarrek arlo horietan dituzten premiak euskaraz gogobete nahian.
- Era berean, herritarren parte-hartze demokratikoa eta kritikotasuna sustatzen dituzte, eta eduki interesgarriak emateko helburua dute, ondo azalduta eta aztertuta eman ere, gaur egungo mundu konplexua ulertzen laguntzeko moduan. Euskal komunikabideen esparruak informaziorako eta eztabaidarako plaza oso bat eratu nahi du, herritarren zerbitzuan.
- Hekimeneko hedabideak erantzuleak dira herritarren aurrean, eta, inoiz datu okerren bat emanaz gero, jendaurrean aitortu eta ahalik eta azkarrena zuzenduko dute.

• Kalitatea eta berrikuntza

Etengabe hobetzea eta berritzea da kalitateko komunikabideak lantzen segitzeko modu bakarra, eta halaxe jokatzeko konpromisoa dute Hekimeneko kideek.

Jardunbide hori edukiei bezala dagokie euskarri ere, euskarak bere tokia izan behar baitu oraingo eta etorkizuneko euskarri guztietan, hala paperezko argitalpenetan, irradian eta telebistan, nola Interneteko edukietan: webguneetan, telefonoetarako aplikazioetan, sare sozialetan eta teknologiak ekarriko duen edozeinetan.



• Independentzia botere politiko eta ekonomikoetatik

Gure edukiak lantzeko eta zabaltzeko orduan, irizpide profesionali jarraitzen diegu, botere politiko eta ekonomikoetatik libre. Ez da onartuko presio politiko edo komertzialen arabera jokatzea, ezta interes pertsonalen arabera jokatzea ere.

• Pluralismoa

Hekimeneko komunikabideek Euskal Herriko gizartearen ispilu izan nahi dute, eta ahaleginak egiten dituzte gizartearen errealitatea eta balioak jasotzeko, bere aberastasun guztian. Interes informatiboaren arabera plazaratzen dira bateko eta besteko iritziak, ikuspuntuak, adierazpenak, testigantzak eta abar, betiere kontuan harturik printzipio demokratikoak eta pentsamendu- askatasuna.

• Giza eskubideak

Hekimeneko partaideek bat egiten dute Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin, eta elkartasuna, bizikidetzeta eta justizia soziala sustatzen dute. Giza eskubideen urraketa guztiak gure balio editorialaren kontrakoak dira. Arreta handiz landuko dira bai iraganeko urraketak eta bai oraingoak.

• Kohesio sozialaren alde, bereizkeriarik gabe

Ez da inor bereizkeriaz tratatuko ezein zirkunstantziagatik: sexua, jatorria, etnia, egoera sozioekonomikoa, sexualitatea, kultura, adina, erlijioa, ideologia politikoa... Ez da estereotiporik elikatuko, eta kohesio soziala sustatuko da, diskriminazioari laguntzen dioten aurreiritziel buru eginez. Alde horretatik, badira arretaz zaindu beharreko zenbait gai:

▸ Euskara.

- * Euskara eta euskal kultura dira gure nortasunaren muina, eta biek ala biek osatzen dute gure erreferentzia-eremua. Euskaldunon talaia berezi hori izango dugu munduari begiratzeko ikuspuntua, eta euskaraz ariko gara gure lan-alor guztietan.
- * Euskara egokia eta bizigarria erabiliko da Hekimeneko komunikabideetan, eta denek ere beren alea jarriko dute hizkuntza-normalizazioan aurrera segitzeko, euskararen erabilera areagotzeko eta euskaltzaletasuna biziagotzeko.

▸ Naziotasuna eta lurraldetasuna

- * Hekimeneko komunikabideok konpromiso bat dugu, euskararekin eta euskal kulturarekin ez ezik, euskal herritarron errealitate sozial, ekonomiko eta politikoarekin ere, eta Euskal Herria dugu erreferentzia-esparru nazionala gure ikuspegia mamitzeko orduan, zernahi ere den komunikabidearen hedadura: nazionala, herrialde batekoa, eskualde batekoa edo udalerrri batekoa.
- * Euskal Herria bere osoan aintzat hartuta jardun nahi dugu, herrialde guztiak gogoan harturik: ez dugu gure lurraldearen zati bat Euskal Herri osoa balitz bezala tratatuko, eta ez dugu euskal ikuspegi zentralistarik sustatuko.

▸ Sexismoa eta indarkeria matxista

*Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko da Hekimeneko komunikabideetan, bai barne-egituretan eta bai edukietan. Horretarako, gizonen eta emakumeen pareko presentzia edukitzea izango da Hekimenen komunikabideen helburuetako bat: parekotasun hori ardura-postuetan eta sailetan zainduko da, edukietan, informazio-iturrietan, elkarrizketatu-kopuruan, kolaboratzaile- eta aditu-sarean, eta abarretan. Aztergaia edo langaia edozein dela ere gordeko da oreka hori.

*Ez informazio-generoetan eta ez entretenimendurako atal edo saioetan, ez da onartuko emakumeen diskriminazioa banalizatu edo justifikatzen duen estereotiporik edo topikorik.

- * Emakumeen kontrako indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa pertsonen askatasunaren kontrako erasotzat jotzen da Hekimeneko komunikabideetan.
- * Indarkeria matxistari buruzko albisteetan, anonimotasunerako eta intimitaterako eskubidea errespetatuko zaie eraso jasandako emakumeei, eta ez da izen-abizenik emango haien oniritziarik gabe.
- * Sexu-delituak indarkeria matxistaren parte dira, eta biktimen izen-abizenak ere ezingo dira jakinarazi haiek horretako baimena eman ezean.
- * Ez da argitaratuko indarkeria matxistaren inguruko datu edo irudi sentsazionalistarik edo morbosorik.
- * Kontuan hartuko da adingabeak eta adinekoak ere izan daitezkeela indarkeria matxistaren biktima.



▸ Migratzaileak

- * Inoren jatorria eta ezaugarri kultural, etniko edo erlijiosoak ez dira aipatuko albistea ulertzeko ezinbestekoa ez bada, eta ezaugarri horiek sekula ez dira identifikatuko delituekin eta bestelako arazo sozialekin.
- * Gutxiengoan estigmatizazioan sakondu dezaketen topikoek ez dute tokirik Hekimeneko komunikabideetan.
- * Gertaerak berak aztertuko dira interes informatiboa duten ala ez erabakitzeko, ez tartean diren herritarren jatorria.
- * Migrazioaz mintzatzean, egitate sozial gisa tratatuko da, ez arazo-iturri gisa, eta migratzaileen ahotsa informazio-iturri funtsezkoa izango da errealitatearen berri ahalik eta osoena emateko.

▸ Adingabeak

- * Haur, nerabe eta gaztetxoengaz ongizatea zainduko da beti, eta haiei buruzko informazioetan ez da plazaratuko kalte egin diezaiekeen inolako xehetasunik edo irudirik. Esaterako, sexu- delituen biktima edo lekuko izan badira, ez dira jakinaraziko haien izen-abizenak.
- * Kontuan hartuko da haiei ahotsa ematea ere, baina ez zaie adierazpenik edo elkarrizketarik eskatuko egoera emozional ahulean badaude, eta gurasoen edo tutoreen baimena beharko da.

▸ Sexualitatea

- * Errespetuz eta taburik gabe tratatuko dira sexualitateari buruzko gaiak, estereotipo matxistak bazterturik.
- * Kontuan hartuko da sexualitatearen aniztasuna, eta ez da heterosexualitate-presuntziorik egingo.
- * Ez da onartuko hizkera homofoborik, lesbofoborik edo transfoborik.
- * Hekimeneko komunikabideek ez dute pornografiarik eta prostituzio-iragarkirik zabalduko.



▸ Osasuna

- * Ezin zehatzago informatuko da osasunari buruz, eufemismorik gabeko hizkera argi eta garden batez, iturri fidagarrietan oinarrituta. Egitateak eta datuak dira Hekimeneko komunikabideen lehengaia, eta ez dira inola ere nahasiko espekulazioekin edo morboarekin.
- * Osasun publikoaren alde egin nahian, informazio praktikoa zabalduko dugu, alarmismorik sustatu gabe.
- * Zorrotz beteko da gaixo fisiko nahiz psikikoen intimitate- eta irudi-eskubidea. Estigmen eta estereotipoen mende erori gabe jorratuko da haien errealitatea, eta plaza eskainiko zaie beren ahotsa entzunaraz dezaten.
- * Arreta handiz zainduko da gaixotasunez mintzatzeko hizkera, bereziki buruko gaitzak jorratzean, eta ez dira inola ere identifikatuko gaixotasun mentalak eta jokabide antisozialak.
- * Bizimodu osasuntsuaren alde egin nahian, ez da hauspotuko gorputzaren inguruko estereotipo estetikorik baldin eta elikadura-nahasmenduak eragiteko modukoa bada, eta kontu handiz tratatuko dira ludopatía, alkoholismoa, tabakismoa eta beste droga- mendekotasunak susta ditzaketen portaerak.

▸ Suizidioak

- * Zuhurtzia handiz tratatuko da suizidioa, berez ez baita albiste: pertsonaren proiektzio publikoaren arabera izango du interes informatiboa, edo gertaeren ingurumariaren arabera.
- * Suizidio-moduaren xehetasunik ez da emango, sentsazionalismoa eta morboa bazterturik.

▸ Hondamendiak

- * Hondamendietan eta arrisku-egoeretan, ahal den azkarrena eta zehatzena ohartaraziko zaie herritarrei, haien segurtasuna babesteko eta kalte gehiago izatea eragozteko, baina izu-girorik zabaldu gabe, datuak ondo kontrastatuta eta zurrumurruak baztertuta.
- * Kontu handiz emango da kaltetuen min fisiko eta psikikoen berri, eta, galderak egin, grabaketak editatu eta beste zereginak lantzean, ez da min hori handitu dezakeen ezer egingo.

▸ Memoria historikoa

- * Hekimeneko komunikabideek aurrera begiratzen dute, baina iragana ahaztu gabe, jakinik memoria historikoa lantzea ezinbestekoa dela oraingo errealitatea ulertzeko. Alde horretatik, arretaz landuko dira iraganeko gertakari garrantzizkoak, hala nola, 36ko gerra, ondorengo diktadura frankista, Bigarren Mundu Gerra, motibazio politikoko indarkeria mota guztiak eta giza eskubideen orotariko urraketak. Horretarako, terminologia zehatza erabiliko da, eta ahalegin berezia egingo da ezkutuan geratu ohi diren errepresioak azaleratzeko: haurren kontrakoa, besteak beste.

▸ Ingurumenaren zaintza

- * Komunikabideak funtsezkoak dira gizartea jabetu dadin gaur egungo ingurumen-arazo larriez: klima-aldaketaz, biodibertsitate-galeraz, natura-baliabideen ustiapen neurrigabeaz eta horrek guztiak gizakien osasunari eta bizimoduari dakartzkien kalteez, besteak beste. Kontzientziazioa eta jokabide arduratsuak sustatu nahian, Hekimeneko partaideek ikerketa zientifikoaren berri emango dute, zenbait produkzio-sistemaren ondorio kaltegarriak agerian utzi, planeta zaindu beharraz ohartarazi, eta kontsumo arduratsuen alde jokatzeko dute. Gainera, esperientzia eta jardunbide egokiak jorratzeko ahalegin berezia egingo da, bizimodu osasuntsua izateko eredu onuragarriak diren aldetik.
- * Hekimeneko kideek konpromisoa dute ingurumenarekin egokiro jokatzeko, eta ahaleginak egiten dituzte ekoefizientziara jotzeko, inpaktu gutxiko teknikak erabiliz, kontsumoa ahalik eta gehien apalduz, biodibertsitatea errespetatuz, hondakinak egokiro kudeatuz eta material birziklatuz baliatuz.



•Publizitatea

Publizitatea da Hekimeneko partaideen diru-iturrietako bat, baina bertako komunikabideetan plazaratzen den informazioa ez da izango publizitatearen mendekoa. Horregatik:

- Argi adieraziko da zein diren publizitate-elementuak, herritarrek informaziotik argi bereizteko gisan.
- Publizitateak ez du baldintzatuko ez ildo editoriala, ez edukiak.
- Ez da onartzen publizitate iraingarriak edo giza eskubideak urratzen dituenik.

Hirugarren atala

Kazetarien jokabide profesionala

Profesionaltasuna, fidagarritasuna eta zintzotasuna dira gure produkzio guztiaren oinarriak. Horretarako, biziki zaindu behar da Hekimeneko kazetarien eta bestelako profesionalen jardunbidea, lanbideko estandar etikorik zorrotzenak betez, irizpide hauei segika.

• Zehatz eta zorrotz

Hekimeneko komunikabideek ahaleginak egiten dituzte zehatz eta zorrotz kontatzeko zer gertatzen den euskal gizartean eta munduan.

- Laster bai, baina zehatz ere bai: Gaur egun, inoiz baino garrantzizkoagoa da bizkor ibiltzea informazioa emateko orduan, baina are garrantzizkoagoa da zehatz ematea gertakarien berri, baieztapen guztiak ondo justifikatuta egotea, eduki engainagarriak ez zabaltzea eta zorrotasun intelektualez jokatzeko. Ezinbestekoa da albisteen testuingurua analizatzea, herritarrek eskura izan dezaten nahikoa elementu fidagarri beren iritzia osatzeko eta errealitatea ulertzeko. Azken batean, informazioa ondo aztertzea eta egokiro zabaltzea da Hekimeneko kideen lehentasuna.
- Ebidentziak eta frogak dira kazetariaren lehengaiak. Oinarriak gabeko espekulazioak eta zurrumurruak ezin dira izan informazio-iturri.
- Hizkera argi eta zehatza da gertatutakoaren berri jakinarazteko tresnarik behinena.

• Nola lortu informazioa (iturriak)

- Iturrien identifikazioa eta babesa: Informazioak egiazkoa izan behar du, kontrastatu eta egiaztatzeko modukoa, eta zilegizko bideetatik eskuratua. Kazetariak argi eta garbi identifikatu behar du zer iturri erabili dituen informazioa jaso eta lantzeko. Horixe du bere lanaren bermeetako bat: sendotasuna eta fidagarritasuna ematen dio jakinarazitakoari, eta interpretazio-tresnak jartzen ditu irakurle-entzulearen esku.
- Sekretu profesionala: Sekretu profesionala eskubide eta betebehar etiko bat da, konfidentzialtasuna babesteko ezinbestekoa. Hekimenek sekretu profesionalerako eskubidea babesten du, kazetariak ez baitaude behartuta beren informazio-iturriak jakinaraztera iturriak berak isilpean gordetzeko eskatzen badio. Sekretu profesionala dela-eta iturri bat ezin identifikatu bada, izendapen orokor bat erabiliko da anonimotasuna bermatzeko, baina ahal bezain zehatza izango da izendapen hori, informazioaren fidagarritasuna garbi uzteko. Hekimeneko komunikabideek babesa eta aholkularitza ematen diete beren profesionaleri, sekretu profesionalerako eskubide hori erabili ahal izan dezaten.
- 'Off the record' esandakoa: Errespetatu egingo da iturriek 'off the record' jakinarazitakoa, eta, beraz, ez da argitara emango. Dena dela, 'off the record' jakindakoa argitaratzeko modukoa bada, kazetariari zilegi zaio beste iturri batzuetara jotzea, informazio interesgarri hori jaso eta zabaldu ahal izateko.
- Kontrastatu eta egiaztatu: Hedabideek iturri fidagarrietatik edango dute, eta, iturri iritzi edo bertsioak kontrajarriak direnean, batekoak eta besteak biltzen saiatuko dira, fidagarriak diren heinean. Informazioa argitara eman aurretik, datuak eta dokumentazioa ondo kontrastatu eta egiaztatuko dira. Kontuan hartuko dira gertaeren inguruko bertsio guztiak, datu garrantzitsurik ezkutatu gabe, eta, ahal den neurrian, ez da osatuko iturri bakarrek albisterik. Jasotako material guztia lantzean, kazetariak datu fidagarri egiaztatuen argitan onduko du bere lana, bere iritzi pertsonalaren arabera lerratu gabe.



• Informazioa eta iritzia, ondo bereizita

- Argi eta garbi bereizteko moduan emango dira informazio-generoetako berriak, batetik, eta iritzi-generoetakoak, bestetik.
- Informazio-generoetan ari denean, kazetariak ezin du inola ere eman bere iritzia, eta interpretazioko analisisetan ere gertaeretan eta egitateetan bermatuko ditu bere baieztapenak, ez aurreiritzietan.

• Iritzi generoetan, ahots askotarikoak

- Pentsaera-aniztasuna da gizartearen ezaugarrietako bat, eta halaxe agertuko da iritzi-sailetan adituei, gizarte-eragileei, kanpoko kolaboratzaileei eta abarrei argitaratutako artikuluetan, zutabeetan, gutunetan eta abarretan.
- Komunikabide bakoitzari dagokio zer argitaratu eta zer ez erabakitzea, baina Hekimeneko hedabideetan ez da onartzen faxismoaren apologia egiten duen edukirik, joera politiko horrek eraso egiten dienez gero oinarrizko printzipio demokratikoei eta bizikidetzari.
- Hekimeneko kazetariak, berriz, biziki zainduko dute beren profesionaltasuna iritzi- eta interpretazio-generoetan aritzen direnean, eta analisira joko dute, aurrejuzgu lerratueta erori gabe.



• Testigantzak

- Interes informatiboa: Testigantzek balio dokumentala ematen diote informazioari, zerbaiten lekukotasuna ematen duten neurrian edo alor jakin bateko esperientzia edo jakintza zabaltzen duten neurrian. Zurrumurrua, funtsik gabeko espekulazioa edo morboa dakarten testigantzek ez dute interesik Hekimeneko hedabideetan.
- Intimitatearen errespetua: Herritarren pribatutasuna errespetatu beharrekoa da, eta ez da inola ere hautsiko interes publikoari dagokion arrazoi sendorik ez badago. Pertsonen ohore-, intimitate- eta irudi-eskubideak errespetatu behar ditu kazetariak, eta herritarren informazio-eskubidearekin uztartu.

• Hizkuntza-eredua

- Argi eta egoki ariko dira Hekimeneko kazetari, aurkezle eta gainerako komunikatzaileak, alferrikako klixerik gabe, eta beren hizkuntza-baliabideak etengabe landu eta hobetzeko betebeharra dute.
- Irakurle eta entzuleenganako errespetuz, hitz iraingarriek eta arrunckeriek ez dute tokirik albisteetan.
- Ez da errealitatea itxuragabetzen duen eufemismorik erabiliko, ezta estereotipoak gizentzen dituen esamolderik ere.
- Entrenimendurako eduki informaletan ere euskal eredu egokiak sustatuko dira, erregistroak komunikazio-egoeretan moldaturik ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, erdaren morroi ibili gabe.

• Irudien trataera

- Argazkiak eta bestelako irudiak trata daitezke kalitatea hobetzeko, baina edukia ez da inola ere manipulatu, eta, beraz, ez da sekula biderik emango irudiak gaizki interpretatzeko.
- Istripuetan, hondamendietan eta gainerako ezbeharretan, ez da irudi odoltsu espliziturik argitaratuko, ezta hilotzen edo zaurituen lehen planorik ere.
- Ez da onartuko inoren ohore edo intimitateari kalte egiten dion irudirik.

Hekimen Euskal Hedabideen Elkartearen
KODE DEONTOLOGIKOA

2024ko martxo

Kode deontologiko hau Hekimen elkarteak garatu du, Euskal Hedabideen Mahaian horrela adostuta (Mahaia Hekimen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta hiru Aldundietako euskara zuzendaritzek osatzen dute); bere helburu nagusia elkarteko bazkideei beren edukiak eta jarduna egoki garatzeko irizpide adostu batzuk eskaintzea izan da.

Elkarteko zenbait hedabidek lehenagotik ere bazituzten beren irizpide edota estilo liburuak, baina interesgarri ikusi zen denentzako baliagarria izango zen kode bat sortzea eta azkenean iritsi da hainbat hilabetetako lanaren emaitza.

Lanbide horretan gidari eta laguntzaile izan dugu Irene Arrarats Berriaren Estilo liburuaren zuzendari eta koordinatzailea eta orain erronka nagusia, hedabide bakoitzak kodea bere barne prozesuetan txertatzea eta lantaldeetako kideei ezagutaraztea izango da. Zeregin horretan ere bazkideek elkartea bidelagun izango dute.

Irudiak: www.freepik.com